


HEZKUNTZA
ETA PASTORAL
PROIEKTU
MARKOA



B
BIDAIDE
FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA



KRISTAU ESKOLA

BIDAIDE



AURKIBIDEA

- 6** Hitzaurre
- 8** Agurra
- 10** Sarrera
- 12** Proiektu markoa
- 15** Gaur eta hemen
- 21** Gu
- 26** Hezkuntza Proiektua partekatzen dugu
- 31** Kristau Eskola

HITZAURRE

Orri hauetan aurkeztu nahi dugun dokumentuak BIDAIDE FUNDAZIOA eta bere hezkuntza proiektu pastoralak osatzen duten ikastetxeen nortasuna definitzen duten ezaugarri esanguratsuenak biltzen ditu.

BIDAIDE FUNDAZIOA KRISTAU ESKOLAK sorturiko egitura da, eta helburu du bere baitan hartzea erakunde erlijiosoek, hainbat arrazoi direla medio, kudeatzeari utzi dioten baina hezkuntzaren bitartez elizak euskal gizartean presentzia izaten jarrai dezan nahi duten ikastetxeak.

Bestalde, KRISTAU ESKOLAK bere "hezkuntza proiektu pastoralaren" esparru dokumentu bat eskaintzen du. Bertan, KRISTAU ESKOLAK bere nortasunaren hainbat ezaugarri laburbiltzen eta azpimarratzen ditu; haien bitartez hezkuntza komunitateen gogoeta erraztu nahi da pertsonaren, hezkuntzaren eta gizartearen ikuskera kristauaren eramaile gisa duten nortasunari buruz. Azken batean, beren egunerokoan, Ebanjelioaren balioen bizipenaren oihartzun den giza existentziaren zerbitzura jarritako hezkuntza jarduera emankor batekiko konpromisodunak dira.

BIDAIDE FUNDAZIOAK, KRISTAU ESKOLAREN zati den aldetik, bere egiten du esparru dokumentu hori, nortasun elementu gisa, eta hezkuntza-pastoral arloan duen presentziaren zentzua eta irismena definitzen duen dokumentu gisa.

Dokumentuaren edukia honako hauetan dago banatuta:

- ◆ Proiektu bat definitzen duen **hitzaurreak** dei bat iradokitzen du, Elizaren presentzia posible egiten duen proposamen bat eskaintzen du, eta KRISTAU ESKOLAKO ikastetxeen konpromisoarekin amaitzen du.

- ◆ **Lehenengo zatian** honako definizio hau biltzen da:

- Hezkuntza proiektu pastoral marko baten **ZERGATIA**, Kristau Eskolaren orainean eta etorkizunean bildutakoa.

- Gure errealitatearen EGUNGO EGOERA ETA LEKUA, eta beraz, honako galdera hauen erantzuna bilduko duena: Zer gertatzen da? Non gaude?

- **NOR GAREN GU**, alegia, zein den gure nortasunaren definizioa "Nor gara?" galderaren bitartez.

◆ **Bigarren zatian** honako hauek definitzen dira:

- **HEZKUNTZA PROIEKTUA**, pertsonen **hazkuntza integralaren** helburua adierazten duena, Humanismo Kristautik abiatuta; **presentzia eta eragile** helburu batekin; **konpromisodun komunitateetan** bilduta; berezko **hezkuntza estilo** batekin.
- **PASTORAL PROIEKTUA**, ekintza pastoral osoaren xedea berriz aipatzen duena: pertsonen **hazkuntza integrala** lortzea **Jesusen figuratik abiatuta**; **nortasun kristauko proiektuen** proposamenekin; **konpromisodun komunitateen** bitartez; hezkuntza proiektu pastoral batekin, zeinak berekin dakarren **ebanjelizatuz heztea** eta **heziz ebanjelizatzea**.

Labur esanda, dokumentu horren edukiak elkarren artean lotura estua duten hiru galderari erantzun nahi die: Zein da Kristau Eskolaren nortasuna? Zer hezkuntza mota eskaintzen du? Nola antolatzen da gizarteari zerbitzu hori emateko? Hau da: **nor** da, zer **eskaintzen** du eta **nola**.

Amaitzeko, gogoratu beharra dago halako ezaugarriak dituen dokumentu batek **eskola ideal** bat aurkezten duela. Kristau Eskolak izan nahi duena aurkezten du. Ondorioz, haren nortasunaren definizioa pizgarri bat eta konpromiso bat da hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztientzat.

AGURRA

Hezitzaileen belaunaldi berri bakoitzak, hezkuntza-filosofia osatzen duten balio eta praktikak aztertu eta hausnartu behar ditu, eguneroko eginkizuna gero eta ohikoagoak eta handiagoak diren aldaketetatik, egoeretatik eta bizitzea dagokien garaietatik eratorritako eskakizunetara koherentziaz egokitzeke eta gure hartzaileen -gure Hezkuntza Proiektuen ardatza-deiari erantzuteke; dei hori gero eta premiazkoagoa da, eta hartzaileak aldaketarako sentikorrak dira, haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroko ezinbesteko aldietan.

Aldaketa handi eta sarrien errealitatearen aurrean, gazteek ez dizkiete kezka, behar, arazo eta zauriei erantzunak aurkitzen ohiko hezkuntza-egituretan, eta, horregatik, gure proposamenek ez dituzte espero diren emaitzak lortzen¹.

KRISTAU ESKOLA osatzen dugun 130 ikastetxetan baino gehiagotan, argi daukagu hezkuntza-larritasun garaia² bizi dugula gure inguruan (nola ez!), familian, gizartean, Elizan eta, ondorioz, eskolan eta hezkuntzan, eta gogoetako, bilaketako, sormeneko eta sinergien sorkuntzako ahalegin berrituak eskatzen dira, komunitate osoak hezten eta ebanjelizatzen duela uste dugun guztion artean.

Egun, KRISTAU ESKOLA markak hamar urte bete berri ditu, eta “Hezkuntza eta Pastoral Proiektuaren” dokumentu markoa eskaintzen du, indarrak batzeko eta euskal gizartearen beharrei erantzuten dien eskola modernoko erreferente eta sustatzaile bihurtzeko desio eta ahaleginaren adierazpen gisa, “familien familia”³ den Elizan.

KRISTAU ESKOLA pertsona, hezkuntza eta gizartearen ikusmolde kristauaren eramaile da, eta dokumentu markoan nortasun horri buruzko hezkuntza-komunitateen gogoeta ahalbidetzen duten nortasuneko zenbait ezaugarri laburtzen eta azpimarratzen dira, egunerokotasunean, hezkuntza-ekintza ugalkor eta giza bizitzako zerbitzura⁴ jarrita, Ebanjelioko balioen bizi-oihartzun gisa.

¹ Cfr. Francisco. EG. 64, 105, 106

² Benedicto XVI.a, Italiako Apezkipu Batzarreko osoko diskurtsoa. 2010.05.27.

³ Francisco, AL. 84

⁴ Benedicto XVI.a, Idem.

KRISTAU ESKOLAREN xedea betetzeko asmoz, egunero egiaren arabera, gizarteari irekita, etorkizunari begira eta pertsonaren zerbitzuarekin konprometituta hezten duen eskolan sinestea eta eraikitzea erronka izaten jarraitzen du. Erronka hori etengabe eguneratzen da, eta, erantzun orijinalen historia luzea igaro ondoren, ikastetxeak gizarte aitortpeneko maila altuetara iritsi dira.

Horiek horrela, ikastetxe bakoitzaren identitate karismatiko eta pedagogikoaren aniztasunak eskaintzen dituen aberastasuna eta balioa onartzeaz gain, esparru-dokumentu hori gogoetarako laguntza eta bakoitzaren eta denen hezkuntza-kalitatea hobetzeko aukera gisa eskaintzen du KRISTAU ESKOLAK; horretarako, honako gai hauen inguruan iradokitzen diren hainbat erreferentzi, erronka eta estrategiez baliatzen da:

- Gure ikastetxeen egunerokotasuna
- Kristau Eskolan partekatutako hezkuntza-nortasuna
- Gure Hezkuntza eta Pastoral Proiektuaren gakoak.
- Hezkuntza-komunitateko talde ugarien parte-hartzea eta gogoeta ahalbidetu dezaketen zenbait proposamen metodologiko.

Dokumentu marko horrek oihartzun ugari eskuratuko ditu hezkuntza-komunitate bakoitzean. Hori kontuan hartuta, horietako bakoitzarekin sortze-karismatikiko eta Espirituaren eta senideen deia entzun eta, zegokien garaian, sormen eta iraunkortasunez, eskola berrituaren aldeko apustua egin zutenen ereduarekiko leialtasuneko ahalegina partekatzeko asebetetzea eta itxaropena sentituko du KRISTAU ESKOLAK. Pertsona horiek dihardute “berritzen ari den pasioarekin gaur eta bihar nola hezi”⁵ irakasten.

Mikel Ormazabal

Kristau Eskolako Zuzendari Nagusia

⁵ Cfr. OIEC. Hezkuntzari buruzko Munduko Kongresua, 2015

SARRERA

Proiektu bat

Kristau Eskolak, hezkuntza integraleko proposamenaren bidez, erantzun koherentea, eraginkorra eta efikaza ematen die gure gizarteko beharriari, eta Euskal Herriko hezkuntza sistema aberasten du, definitzen eta konprometitzen gaituen elementu hau erantsita: hezkuntza kristaua identifikatzen duen bizitzaren eta munduaren zentzua.

Dei bat

Inguratzen gaituen errealitateari, ikastetxe askoren ehun urtetik gorako historiaren oihartzunari, eta inguruko hezkuntza eskaerei arretatsu, Kristau Eskolak modua aktiboan parte hartzen du euskal hezkuntza sistemaren orainaldian eta etorkizunean, honako hauetan inspiratutako Hezkuntza Proiektuaren bidez: kristau humanismoaren balioetan, eta fedearen, kulturaren eta bizitzaren arteko elkarrizketaren foro iraunkorra bilakatzeko ahaleginean. Gaur, atzo eta bihar bezala, aitortutako kalitatezko hezkuntza-proposamenaren bidez erantzuteko gai diren komunitateekin batera jarduten du.

Proposamen bat

Proposamen ireki eta humanizatzailearekin, Kristau Eskolak hezkuntza, harrera solidarioa, profesionaltasuna eta kristau humanismoan oinarritutako Hezkuntza eta Pastoral Proiektua eskaintzen die familiei eta atea jotzen duten pertsona guztiei. Hezkuntza beharizanean egokiro erantzuten die, adimenen aniztasuna kontuan hartzen duen hazkunde integraleko proposamenarekin, eta ikasleak prestatzen ditu, bizitza osoan zehar ikasten jarrai dezaten. Horrez gain, barnekotasunaren garapena eta transzendentziarekiko irekitasuna mesedetzen du.

Elizaren presentzia

Aniztasun kulturalak, etnikoak eta erlijiosoak markatzen duten gizartean, eta laikotasuna zein sekularitasuna gero eta handiagoa den inguruetan, Kristau Eskolak laikotasuna bera aberasten du, erroak Ebanjelioan dituen eta honako hauen alde egiten duen Hezkuntza Proiektua eskainiz: tolerantzia, kulturarteko elkarrizketa, kontzientzi moralak, eta ikastetxeen identitatearen eta gaur egungo kulturen arteko elkarrizketa.

Konpromisoa


Ezagutzaren eta bikaintasunaren garapenarekiko konpromisoa hartu duten eskolen eta hezkuntza-komunitateen sarea denez, Kristau Eskolak aldatetari, berrikuntzari, galdera sortzaileari, barnekotasuna lantzeari eta gizarte transformazioari irekita dagoen hezkuntza-eskaintza sustatzen du.

Pertsonen arteko harremanen ingurua zein kalitatea eta hartzaileekiko konpromisoa kontuan hartuta, Hezkuntza Proiektuak ikasleei euren bizitzaren zentzua, munduan dagoen lekua, zoriontasunaren zenbait gako eta adimen emozionalaren eta moralaren garapen harmonikoa aurkitzen laguntzen die.

Hezkuntza integraleko gure proiektuak eta lan egiteko dugun metodologiak hezkuntza-komunitateko kideen konpromisoa sustatzen dute, gizartea hobetzeko asmoz.

PROIEKTU MARKOIA

Zergatik Hezkuntza eta Pastoral Proiektu Markoia
Eskola Kristaua: Orainaldia eta Etorkizuna



Berrikuntza adoretsua egiteko sortu gara

Hirugarren milurtekoaren atarian, hezkuntza eta eskola kristauak erronka soziokultural eta politiko berriak aurkitzen dituzte.

Balioen sistemako, lan-munduko eta familia ereduaren aldaketek, informazio eta komunikazioko teknologia berriek, globalizazio ekonomikoak, merkatua mundu-mailakoa bihurtzeak, eta hazten ari den kulturaren homogeneizazioak erronka berriak sortu dituzte gure nortasunarekiko eta komunitatearen antolakuntzekiko; horiek, berrikuntza iraunkorra eta gizarteari eskaintzen dion zerbitzuari buruzko hausnarketa sistematikoa exijitzen dio Kristau Eskolari, gizarte bereizketa eta bazterketa eredu berrien arriskua ahaztu gabe.

Erronka eta arrisku horien aurrean, Kristau Eskolak hezkuntza gizarte tresna garrantzitsuenetzat hartzen du, desberdintasunaren eta gizarte bereizketa zein bazterketaren aurka borrokatzeko. Hori dela-eta, gizalegearen eta demokraziaren araberrako balioak handitzeko eta sakontzeko, garapen ekonomikoa eta kulturala sustatzeko, eta garapen pertsonala eta denon bizitzaren kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu du.

Horregatik, Kristau Eskola etengabeko berrikuntzako dinamikari leiala da, eta pertsonekin eta gizarte aldaketarekin konprometitutako hezkuntza-komunitateen aldeko hautua egin du, honako aukera zehatz hauen bidez:

- Integrazioa, berdintasuna eta hartzaileen unibertsaltasunaren zentzua.
- Gazteen gabezia berriei erantzuteko lehentasuna.
- Ezagutzaren gizartea, fede-kultura-bizitza arloen sintesia eskainiz.
- Kulturaren ikuspegi sistematikoa eta kritikoa.

• Hezkuntza kalitatea, prestakuntza akademikoaren eta pertsonalaren bidez, denontzako hobe den mundua eraikitzean hartzaileek euren lekua eta xedea aurki dezaten.

Errealitatera egokitzeko mendeetako esperientzia dugu

Historian zehar, hainbat hezkuntza kristau erakunde sortu dira, sozialki eta ekonomikoki atzeraturik dauden sektoreen beharrei erantzun orijinala emanez.

Beren burua baztertu duten eta edozein motatako hezkuntza galarazi zaien haur eta gazteekiko hezkuntza karitate sakonetik jaiota, gaur egun, karisma eta misioarekin leialak izaten jarraitzen dute munduko leku askotan, eta giza eta kristau prestakuntza eskaintzen dute, interpelatzen gaituen pobrezia berrien aurka borrokatzeko tresna gisa.

Era berean, egun, Kristau Eskolak modu aktiboan laguntzen du, hainbat komunitate eta herritako garapen sozial eta kulturala gauzatzeko, berrikuntza pedagogiko eta didaktikoarekin, bai eta irakasleen eginkizuna bokazio gisa hartzen duten horien ahalegin handiarekin ere.

Kristau Eskolako ikastetxeek honako hau eskaintzen diote gizarteari:

- Gure hezkuntza-proiektura libreki atxikitzen diren guztientzako irekia den hezkuntza.
- Balioak eta jarrerak bereganatzeko gai diren izaera heldua eta arduratsua sortzea ahalbidetzen duten estimuluak.
- Egia bilatzeko konpromisoa, gizartearekin elkarriketa kritikoa eta konstruktiboa edukiz.
- Ondasunen kudeaketa gardeneko konpromiso etikoa, bidezkoago eta solidarioagoa den munduaren alde.

Kristau komunitateko eskola gisa modu eraginkorrean definitu behar dugu

En Kristau Eskola los educadores, personal y comunitariamente, son los primeros responsables en crear un estilo educativo y pastoral original, en realizar su labor docente y en establecer con los demás un cuadro de relaciones en las que, más allá del simple dar y recibir, tienden la mano de quien acompaña la construcción de la persona en todas sus dimensiones.

Kristau Eskola, fiel al Humanismo Cristiano, se define como comunidad de centros cuyo Proyecto Educativo se inspira en el Evangelio, promueve la experiencia y el compromiso comunitario de sus miembros y realiza su misión con una visión pedagógica basada en el convencimiento de que “educar es relacionar”.

Etorkizunarekiko jarrera irekia duen eskola gara


Errealitate aldakor honetan, erakundeen sustraiek eta sorkuntzak, bai eta Kristau Komunitateko eskolen definizioak ere, Kristau Eskola esperantza- eta etorkizunarekiko irekitasun-iturria bilakatzen dute, zeina bide berriak zeharkatzeko, metodo sortzaileak eta beti "berriak" diren hezkuntza proposamenak, eta Euskal Herriko eskolen ehuna aberasteko eta garrantzia azpimarratzeko baita.

Gure historiarekiko eta nortasunarekiko leialak gara, eta modu berezian zaindu behar ditugu:

- Gure ikastetxeen, bertako hezkuntza-komunitateen eta Hezkuntza Proiektuen nortasuna.
- Ikastetxeen originaltasuna, inguruko ikastetxeekiko desberdintasuna markatu dezan, hobekuntza iraunkorreko eta gainditzeko pentsamolde iraunkorreko prozesuekin.
- Gure apustua, ikasleak eta euren senideak hezkuntza-proiektuko ardatz izan daitezen, bai eta gure eskaintzarekiko interesa duten hartzaileak ere.
- Gure hezkuntza-proposamena, hezkuntza sistema transformatzeko eta etengabe aldatzen ari den errealitate sozialera egokitzeko misioaren oinordekoa eta protagonista.
- Ikas-irakaspen berritzaileko proiektu didaktiko eta metodologikoetan oinarritutako etengabeko hobekuntza.
- Etorkizunarekiko irekitasuna, egunerokoan ezarritako eleaniztasunaren eta ikastetxeen nazioartekotasun progresiboaren bidez.

GAUR ETA HEMEN

Gaur eta hemen. Zer gertatzen da? Non gaude?



K

- 1 Hezkuntza larritasuneko garaia bizi dugu
- 2 Larritasuna sumatzen dugu gure hezkuntza-eginkizun pastorealean
- 3 Misioa garatzeko konpromisoa duten hezkuntza-komunitate irekiak eratzen ditugu
- 4 Hezkuntza misioaren irakurketa profetikoari buruzko gako berriak gure egiten ditugu

1 Hezkuntza larritasuneko garaia bizi dugu

“Hezkuntza larritasuna” kontzeptua Hispanoamerikan sortu zen aurreko mendearen amaieran, eta Europan ospetsua bilakatu da, batez ere, Benedicto XVI.ak eskolaren egungo egoeraren erreferentzia gisa erabili baitu, batik bat, Eskola Kristauari dagokionez.

Argi dago eskola, oro har, belaunaldi gazteen hezkuntzaren oinarritzko erakundea izanik, azken urteetan, gorabeherak jasaten ari dela, eta giza akordioaren egonkortasuna ahultzen dute, misioa, sortutako itxaropena, agintzen zaizkion eginkizunak, irakasleen irudia eta estimua, edo hezkuntza integraleko eskaintza osatzen duten esperientzia edo ezagutzen zehaztasunei dagokienez.

Neurri handiagoan edo txikiagoan, hezkuntza larritasuneko zenbait sintoma identifikatu ditzakegu gure eskolan:

Alde batetik, aldaketa instituzionalak aurreikusten dira ikastetxeen titulartasunean, eta honako gertaera hauek eragin ditu: gobernu- eta erabaki-organoetako deslokalizazioa, erakunde titularreko kideen presentziaren murrizketa eskolan, hezkuntzaren eskusibotasuna Estatuaren titulartasun publikoari esleitzen dion sentikortasun sozialaren gehikuntza, eskola konfesionalen existentziari eta finantzazioari eta hezkuntza konfesionalak gizarte erlatibista eta sekularizatuan duen balioari buruzko eztabaidak.

Beste aldetik, hezkuntza larritasun hori oinarritzko hezkuntza erreferentziako beste aldaketa batzuek nabarmentzen dute, hala nola:

- Familiaren konfigurazioa eta eskolarekiko harremana.
- Hezitzaileen ikuspegi soziala.
- Ikastetxeetako misio hezitzaile-ebanjelizatzailearekiko identifikazio eta koherentzia maila.
- Aukeren hazkunde esponenziala eta eskolarekiko paraleloak diren beste eskabide batzuen eragina bizitza pertsonalean eta sozialean.
- Ikastetxeen eta horien hezkuntza komunitateen ezegonkortasun ekonomikoa eta juridikoa, araudiaren behin-behinekotasunaren eta hezkuntzako bi sareen –publiko eta pribatua- osagarritasunean oinarritutako EAEko hezkuntza sistemari buruzko lege gabeziaren ondorioz, ikastetxeen eta hezkuntza administrazioaren arteko harremana zailtzen baitu.

2 Larritasuna sumatzen dugu gure hezkuntza eta pastoral eginkizunean

Hezkuntza larritasuneko egoera horrek, naturala denez, gure ikastetxeen eta bertako hezkuntza-komunitateen nortasuna kaltetzen du, eta gizarte konplexu, kultura zein erlijio anitzekoan, hots, "likidoan" oinarritzko balioen transmisioa zailtzen du; izan ere, hezkuntzako funtsezko helburua den zentzuaren bilaketa pertsonaren dimentsio erlijiosoari buruzko aurreiritziek eta, batzuetan, oinarriek baldintzatzen dute, gabezi kulturalak, irizpide etiko erlatibistak eta indibidualistak edo gure inguruko deriba laizistak direla-eta.

Belaunaldi gazteetan nabariagoa den berehalakotasuna eta epe laburreko eraginkortasuna lortzeko irrika ezarri denez, hezitzaile askok bokazioaren bizipenaren eta "eginkizuna eta misioa" ukatzeko tentazioaren arteko aurkako sentsazioak sentitzen dituzte.

Arlo horrek ez ditu baztertzen hezkuntzako eta ebanjelioko eskema berrituen sorkuntza, bilaketa eta entseguari dagozkien ikuspegi interesgarriak, eta gure hezkuntza eginkizunaren irakurketa positiboa eta KEko ikastetxeen izena eta gizarte irudi ona mesedetzen dute.

3 Misioa garatzeko konpromisoa duten hezkuntza-komunitate irekiak eratzen ditugu

Kristau Eskola osatzen duten ikastetxeek eta gure hezkuntza-komunitateek "hezkuntzako bitartekarien artean, garrantzitsuena eskola dela" jakitun dira. Ikastetxeetako ikuspegian eta kudeaketan aldaketa erabakigarriak eskatzea onartzen dute, eta laikotasunaren balioaz gain, gero eta gehiago diren laikoen lankidetzak aintzatesten dute, eginkizun eta erantzukizun maila ezberdinekin partekatutako misioarekin lotura eta konpromisoa baitute.

Horri esker, gero eta sekularragoa eta beti plurala izan den agertoki erlijioso eta sozialeko exigentziak errespetatuz, Kristau Eskola eta bere hezkuntza komunitateak honakoak gauzatzen dituzte:

- Ikastetxeetan, fedearrekiko hastapeneko eta atxikimenduko esperientziak sustatzea.
- Pobrezia pertsonal eta sozial berriei erantzutea.
- Giza sustapen integrala, unibertsala eta ekologikoaren alde egiten duten dinamika eta egitura sozial-ekonomiko-kulturalak ikertzen, birsortzen eta eraikitzen dituzten gizarte eragile bilakatzea.

④ Hezkuntza misioaren irakurketa profetikoari buruzko gako berriak gure egiten ditugu

Ikusmolde sozial, kultural eta erlijioso ezberdinek edo kontrajarriek eta bizitzaren zentzuari eta hezkuntzako balioei buruzko galderekiko erantzun anitzek markatzen duten gizarte honetan, gure hezkuntza-komunitateak elkarrizketaren alde egiten dute, eta, askotan, hezkuntza-nortasuna eta fideltasun karismaduna sostengatzen duten proposamen ebanjelikoaren konfrontazio ukaezinaren alde.

Horregatik, gure eskolak hezkuntza-proiektu bereizitakoetarako finantzazio publikoa jasotzea defendatzen du, eta bizitzaren eta hezkuntza integralaren zentzuari buruzko ikuspegi dibergenteen arteko bizikidetzatza ahalbidetzen du.

Bestalde, Kristau Eskola familiek askatasunez gure hezkuntza-proiektua aukeratzeko eskubidearekin leiala da, eta honako ezaugarri hauen arabera hezkuntza-proiektua eskaintzen du: pertsona hezkuntza-jardueraren erdigunean jartzea; pobreenekiko lehenetsuneko arretako jarrerak mantentzea; fedearen, kulturaren eta bizitzaren arteko elkarrizketa sustatzea; ingurua eraldatzeko esperientziak bultzatzea; pertsonen eta herrien eskubideak eta betebeharrak erabiltzea, eta kultura eta ezagutza garatzea, euskal hezkuntza sistemaren esparruko pertsonen garapen integralari erantzuteko asmoz.



ERRONKAK

- Euskal hezkuntzaren sareko ikastetxe konfesionalen presentziari buruzko egungo eta, batez ere, etorkizuneko ikuspuntuak hobetzea.
- Ikastetxeetako eta hezkuntza-komunitateetako nortasun pedagogikoa eta pastoral mantentzea eta hobetzea, honako alor hauen baitan, besteak beste:
 - Eskola profetikoa eta berritasunen iragarlea.
 - Ikasteko gai den eskola.
 - Ingurura eta animatzen duen fedearen, sustatzen duen kulturaren eta prestatzen duen bizitzaren arteko elkarrizketarako irekita dagoen eskola.
- Erakundea eta hezkuntza komunitateak gaitzea, XXI. mendeko ikuspuntu aldaketak, globalizazioa, kulturartekotasuna, mugikortasuna, garapen teknologikoa eta bestelakoak modu eraginkorrean ulertzeko.
- Eskari legal eta sozialen eboluzioari egokitutako titulartasuna eta lidergoa gauzatzeko eskema berriak ezartzea.
- Sorkuntzako eta berrikuntzako izaera etengabea hausnartutako, partekatutako eta zuzendutako esperientzian oinarritutako aldaketari eta etengabeko hobekuntzari irekita dauden irizpideak ezartzea.
- Finantziarioari, optimizazio teknologiko, pedagogiko eta metodologikoaren bidez erantzutea, babesgabeak artatzeko asmoz.
- Ikastetxeetan elkartasuna sendotzea, aginte eta administrazio publikoengan hazten ari den boterearen, edo oldarkortasunaren, aurrean.




ESTRATEGIAK

- Ikastetxeen, Zuzendaritza Taldeen, eta hezkuntza-komunitateko talde eta kideen NORTASUN KARISMATIKOA sendotzea.
- Ikastetxe bakoitzeko LIDERGOA ETA NORTASUN KARISMATIKOA sustatzen duten gobernuko eta kudeaketako sistemak ezartzea.
- Hezkuntza komunitateko kide eta talde ezberdinengan PARTAIDETZAREN ETA ERREFERENTZIA KARISMATIKOAREN ZENTZUA sustatzea.
- SENIDEEI zuzendutako hezkuntza eta pastoraltzako ekintzei eta hezkuntza erantzunkidetasunaren gauzatzeari lehentasuna ematea.
- «Beti horrela egin da» irizpide erosoak baztertzea, komunitateen helburuak, egiturak, estiloak eta metodoak BERRIZ PENTSATZEKO, ausartak eta sortzaileak izanik.
- KEk edo beste erakundeek sustatutako BERRIKUNTZA PEDAGOGIKO eta METODOLOGIKO eta ELKARTASUNEZKO ekimenetan presentzia aktiboa sustatzea.
- KEko ikastetxeen artean, PRAKTIKA ONAK komunikaziorako eta hedapenerako sistemak ezartzea

GU

Nortzuk gara?



K

- 1 Nortasun kristaua duen proiektuaren sustatzaileak
- 2 Misio hezitzaile eta pastoralerako jaiok
- 3 Bizitza eta misioko komunitateetan elkartuta
- 4 KEko ohitura hezitzaile eta sortzailearekiko leiala den hezkuntza- eta kudeaketa-estiloa

1 Nortasun kristaua duen proiektua sustatzen dugu

Senideen eta ikastetxeen eskubideen askatasunak proiektu-aniztasuna dakar, eta gure gizarteko errealitate pluralaren arabera eskemak askatasunez hautatzeko erraztasuna eskaintzen dute.

Benetan hautatzen da ezberdintasunak daudenean, soil-soilik!

Horregatik, KEk hezkuntza munduan duen presentziaren orijinaltasuna sustatzen eta defendatzen du, eta gardentasun osoz desberdinak diren eta gureak bezain baliagarriak eta preziatuak diren Hezkuntza Proiektuak eskaintzen dizkie interes eta sentikortasunen arabera hautatzen dutenei. Era berean, hezkuntza-eskabide ezberdinetatik errespetua, babesa eta berdintasuna eskatzen ditu, eta hautatzeko aukerak berak edukitzea ahalbidetzen diete hezkuntza-hartzaileei eta senideei.

Euskadiko hezkuntzaren testuinguruan, KEko ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuen orijinaltasuna eta ezberdintasunaren erroak antropologia kristauaren eskabideen arabera eskaintzetan, bizitza pertsonalaren eta sozialaren ikuspegi transzendentean, eta hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen eguneroko kudeaketaren ezaugarri diren balio propioetan egin ditu.

2 Misio honetarako jaioak: hartzaileen hezkuntza integrala

Halaber, Kristau Eskolak Euskal Herriko hezkuntza-sarean duen presentziak eta hezkuntza-eskaintzak misio hauekiko identifikazioari eta konpromisoari erantzuten diete: kultura eta erlijio anitzeko munduan, pertsonen ezagutza eta garapen integrala ahalbidetzea eta mesedetzea eta bizitzaren eta gainerakoekin dituzten harremanen kalitatearen hobekuntza sustatzea.

Horregatik, honako hauen alde egiten dugu: pertsona bakoitzaren hazkuntza iraunkorra, ahalik eta gehien garatu daitezen; giza, bizitza- eta lan-komunitateko eskolako esperientzia; ezagutzaren sorkuntza eta pertsonalizazioa; fedearen, kulturaren, bizitzaren integrazioa, eta ahalegin eta konpromiso pertsonala, pertsona bakoitzaren gaitasunen arabera, gizarte transformazioko eragile gisa.

3 Bizitza eta misio komunitateetan elkartua

Bere nortasuna dela eta, KEko ikastetxeak bertan parte hartu nahi duten pertsonari eta taldeei irekita dauden hezkuntza-komunitateak dira, hezkuntza sistemen nortasun eta gako eraginkorrak errespetatuz.

Horietan, seme-alabentzako gure Hezkuntza eta Pastoral Proiektua hautatzen duten senideak, irakasle zein hezitzaileek eta gazteek misio bera partekatzen dugu, eta lanarekin konpromisoa eta koherentzia duen pertsonaren hezkuntza integralaren alde egiten du, bai eta ikasgela barruan eta kanpoan senideekin eta komunitateekin kolaboratu ere.

KEko ikastetxeek, eskolako ordutegiaz haratago, senideen eta eskolaren arteko harremanen jarraipena eta koherentzia mesedetzen dute. Horrez gain, barnekohezia sendotzen dute, bai eta eskola hezkuntza-komunitate gisa eratzeko ere, hau da, giza harremanetarako gune gisa. Pertsonen hazkuntza ahalbidetzen du, elkarren arteko konfiantza eta elkartasuna zein erantzunkidetasuna bezalako balioekiko estimulua gailentzen den inguruan.

4 KEko ohitura hezitzaile eta sortzailearekiko leiala den hezkuntza- eta kudeaketa-estiloa

Kristau Eskola osatzen duten ikastetxeetan, hezkuntza- eta kudeaketa-estiloak, oro har, sortzaileengandik herentzian jasotako hezkuntza-ohiturari erantzuten diote, eta ohitura horiek, hain zuzen ere, ingurune kultural ugaritan eraginkorrak direla egiaztatu da.

KEko sareko ikastetxeok honako hauekiko konpromisoa partekatzen dugu: ezagutzaren eta pertsonen garapena; munduaren, gizartearen eta pertsonen ikuspegi positiboaren eta konprometituaren inspirazioa; egoera berrien aurrean sorkuntza eta malgutasuna; pobre eta baztertuenezikiko konpromisoa; justiziaren, egiaren eta ongi komunaren bilaketa etengabearekiko konpromisoa, eta kalitateko eta berrikuntza iraunkorreko eskaerekiko egokitzapena.

Horretarako, kontuan hartzen ditugu indarrean dagoen araudiarekiko gure konpromiso kritiko eta konstruktiboa, ofizialki aitortutako hezkuntza sistema ezberdinen garapena, ezagutzaren sorkuntza eta hedapena, eta metodologien hezkuntza- eta didaktika-berrikuntza.



ERRONKAK

- Hezitzaileen bokaziozko dimentsioa sendotzea, bizimodua zehazten duten aukera sakonagoetan eta zintzoagoetan oinarritutako misioaren aurrean.
- Profesionaltasun pedagogikoan eta ikastetxe bakoitzeko egoera zehatzei hezkuntza-erantzuna emateko berrikuntzan oinarritutako lan-eskemak ezartzea.
- Hezkuntza eta pastoraltzako paradigmen aldaketa ahalbidetzen duten aukera pedagogikoak gauzatzea.
- Krisi ekonomikoko eta balioen hutsuneko egoera orokorraren egiaztapenetik hezkuntza eta pastoraltzako aukera berriak aurkitzera igarotzea.
- Jardueren hezkuntza eta pastoraltzako ekintza gainditzea, sorkuntza pedagogikoaren eta egungo kulturaren presentzia hezitzailea izateko gakoak hobetuz.



ESTRATEGIAK

• Honako hauek errazten dituzten eremu motibatzaileak eta sendagarriak sortzea, eragile hezitzaile eta pastoralentzat:

- Eguneroko galdera sakonen eta kezka pertsonalen zein profesionalen komunikazioa eta trukea.
- Bizitzaren eta esperientzia pedagogikoaren bereizketa eta sakontzea, irizpide ebanjelikoetatik.
- Banakako eta gizarteko ongiarekiko eta aukera pedagogiko eta pastoraltzako aukeren edertasunarekiko orientazioa.

• Honako alor hauen alde egite duten dinamikak eta egiturak eskaintzea gazteei:


- Kezka, behar, arazo eta zaurien erantzunen bilaketa eta aurkikuntza.
- Ulertezinak diren hizkuntzen entzutea eta ulertzea bilatzen dutenentzako erantzunak.

• Honako hauek sustatzen dituen ekintza hezitzailea eta pastoralak diseinatzea eta ezartzea:

- Bizitzaren zentzuaren eta sentikortasun erlijiosoaren “alfabetatzea/ hastapena”.
- Barnekotasunaren eta pertsonen zentzuarekiko eta transzendentziarekiko irekitasunaren lanketa.
- Hartzaileen parte-hartzea eta protagonismoa, komunitatearen esperientzia eta misioarekiko itzaropena.

HEZKUNTZA-PROIEKTUA PARTEKATZEN DUGU

Ze Hezkuntza Proiektua?



K

- 1 Pertsonen garapen integrala sustatzen dugu, kristau humanismoarekin koherentzian
- 2 Gure misioa onartzen dugu, presentzia kristau eta transformazioko eragile gisa, euskal herriko eta munduko gizartean eta gizarterako
- 3 Partekatutako hezkuntza-proiektuaren garapenarekiko konpromisoa duten komunitateetan elkartzen gara
- 4 Hezkuntza-estilo propioa eta pedagogia- eta kudeaketa-eredu profesionalak, modernoak eta berritzaileak eskaintzen ditugu

1 Pertsonen hazkuntza integrala sustatzen dugu, kristau humanismoaren koherentzian

Pertsonen hazkuntza integralaren, ikastaldiaren eta oinarriko gaitasunen jardueraren esanahiaren eta hezkuntza-prozesuen ikuspuntu ezberdinak elkarrekin bizi diren gizartean, KEko ikastetxeok hainbat erreferentzia eta ezaugarri komun partekatzen ditugu gure Hezkuntza Proiektuan.

Gure proposamenaren sustraiak kristau humanismoan eta fundatze-karismaren sentikortasunean eta espiritualtasunean daude.

- Pertsona bakoitzaren duintasun besterenezina defendatzen du.
- Balioen eta bizitzako jarrerren esperientziak eskaintzen ditu.
- Transzendentziari irekitako bizitzako zentzu eta jarduera barneratzea ahalbidetzen du.
- Eskaerak errespetatzen dituen eta kristau humanismoaren aukerez baliatzen den banakako eta taldeko kontzientziaren garapena sendotzen du.

Giza eskubideak, pertsonen eta taldeen funtsezko askatasunak, eta bakearen, adiskidetzaren eta guztien ongiaren bilaketa defendatzen ditugu, gizarte kohesioaren oinarri gisa, aniztasuneko eta kulturartekotasuneko testuinguruan.

Zuzentasuna eta aukeren berdintasuna errespetatzen duen kalitatezko hezkuntza inklusiboaren aldeko apustua egiten dugu, batez ere, pertsona ahulentzat edo pertsonalki eta sozialki baztertuentzat.

2 Gure misioa onartzen dugu, presentzia kristau eta transformazioko eragile gisa, Euskal Herriko eta munduko gizartean eta gizarterako

KEk eta bertako hezkuntza-komunitateek hezkuntza-misioan parte hartzen dute, euskal hezkuntza sistemaren garapenean eragile proaktiboak izateko borondatearekin, eta horretarako:

- Sarean lan egiten dute beste hezkuntzako eragileekin.
- Kultura eta erlijio anitzeko gizarte honen eskakizunei erantzun orijinala, hezitzailea eta pastoralara ematen die.
- Ikastaldian, ezagutzan, kulturaren bizipenean eta euskararen, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen erabileran integratutako prozesuak sortzen dituzte.
- Elkartasunaren eta parte-hartzearen praktika mesedetzen dute, kulturarteko eta ekintza transnasionaleko Hezkuntza Proiektuetan.
- Mundu justuagoa, zuzenagoa eta iraunkorragoa bilatzen dute, pertsona bakoitzak bakean, pertsonen arteko eta gizarteko adiskidetzean eta baita naturarekin ere, auto-errealizatzeko aukera izan dezan.

3 Partekatutako hezkuntza-proiektuaren garapenarekiko konpromisoa duten komunitateetan elkartzen gara

KE honako ezaugarri hauek betetzen dituzten "hezkuntza-komunitateen komunitate" gisa eratzen da:

- Gure nortasunean berezkoak diren irizpideak eta balioak partekatzen dituzte.
- Hezkuntza-ekintzako beste talde eta sareekin erantzunkidetasunean lan egiten dute: gizarte- eta hezkuntza-ekintzako erakundeak eta hezkuntza-administrazioak.
- Parte hartu nahi duten pertsona eta taldeei irekita dagoen hezkuntza eta pastoral proiektuaren ikuspegiarekin eta gakoekin bat egiten dute, ikastetxe bakoitzeko nortasuna eta gako karismatikoak errespetatuz.

Zentzu horretan, erakunde bakoitzeko hezkuntza-proiektuen pluraltasuna eta aniztasunak, nortasunak eta espiritualtasun karismatikoak euskal hezkuntza-sistema aberasten dute, bai eta konprometitutako erakunde titularren, senideen, ikasleen eta hezitzaileen parte-hartzea eta erantzunkidetasuna lagundu ere.

4 Hezkuntza-estilo propioa eta pedagogia eta kudeaketa-eredu profesionalak, modernoak eta berritzaileak eskaintzen ditugu

KE osatzen duten ikastetxeetako hezkuntza-komunitateek ikastaldien, aniztasunaren eta laguntza sistematikoaren erronkei erantzun originalak eta pertsonalizatuak emateko konpromisoa dute, bai eta ikasleen gaitasun-mailaren gehiengo garapena eskaintzeko ere, euren nortasunarekin bat egiten duten bizikidetzeta, ikaspen, balioen esperientzia, bizitzaren gakoak eta gizarteko inguruetan.

Kideen hazkuntza integralarekiko konpromisoa dute:

- Ikastetxeko antolaketa eta kudeaketako arduradunen lidergo profesionala, hezitzailea eta pastoral indartzen dute.
- Ikas-irakas prozesuak sustatzen dituzte.
- Hezkuntza-eskaintza berritzeko eta etengabe hobetzeko irekita dauden kalitate-kudeaketako sistemak ezartzen dituzte.
- Prestakuntza jarraituaren alde egiten dute, hezkuntza-transformaziorako eta hobekuntzarako eragile gisako.

Horrek guztiak antolaketa ebaluatzeko eta hobetzeko sistemak eskatzen ditu, emaitzen lorpenean eta hezitzaileen jarduera pertsonal eta profesionalean.



ERRONKAK

Ikastetxe bakoitzean, hazkuntzako egiturak eta dinamikak eta hezkuntza eta pastoral komunitatearekiko konpromisoa sustatzea, honako alor hauek ahalbidetuz:

- Hezkuntza eragile ugarien hezkuntza eta pastoraltzako lidergoaren gauzatzea.
- Oinarrizko gaitasunen ikasketa eta asimilazioa.
- Norberaren lanketarako bideak.
- Berrikuntzari irekita dauden ekintza pedagogikoko sareetan parte-hartzea.
- Aukeren parekotasuna eta berdintasuna pertsonen eta taldeen artean, behartsuenen arreta espezifikorako.
- Komunitateko esperientzia, gizarteratze eta konpromiso solidario iturri gisa.
- Bazterketako ekonomiaren susmoen aurkako borroka konprometitua.
- Fedeari irekita dagoen kulturaren eta bizitzaren arteko elkarrizketa.
- Hezkuntza antolaketa eta kudeaketako irizpide profesionalen ezarpena.



ESTRATEGIAK


Hezkuntza-komunitateko kideengan hezkuntza < > ebanjelizazioaren arteko harremanean oinarritutako proiektuaren pentsamoldea eta konpromisoa sustatzea.

Zenbait hezkuntza eta pastoraltzako ekintzetako gakoak aldatzea, honako hauei dagokienez:

- Ikastetxeetako lidergo instituzional, pedagogiko eta pastoralaren gauzatzea.
- Langileak hautatzeko funtsezko irizpideak eta horien hasierako eta jarraipen prestakuntza.
- Pobreenen beharrei erantzuten dion antolaketa ekonomiko inklusiboa, profesionala eta gardena.
- Antolaketako diziplinazko irizpideak.
- Kalitatezko eta bikaintasuneko hezkuntza-irizpideak programazio, curriculumaren garapen eta ebaluazioko prozesuetan kokatzea.
- Hezkuntza-taldeek kudeaketako irizpideak.
- Pertsonen arteko harremanak.

KRISTAU ESKOLA

Zein da Pastoraliza Proiektua?



K

- 1 Pertsonen garapen integrala sustatzen dugu, Jesusen pertsonaren esperientziari dagokionez
- 2 Nortasun kristau eta karismatikoko proiektuak proposatzen ditugu, trszendentziaren, fedearen eta balio ebanjelikoen esperientziari irekita
- 3 Hezkuntza Proiektuaren garapenarekin konprometitutako komunitateetan elkartzen gara
- 4 Hezkuntza eta pastoraliza estilo propioa dugu, ebanjelizatuz heztea eta heziz ebanjelizatzea dakarrena

1 Pertsonen garapen integrala sustatzen dugu, Jesusen pertsonaren esperientziari dagokionez

Kristau Eskolak hezkuntza-proiektuaren funtsezko erreferentziatzat hartzen ditu Nazaretoko Jesusen mezua, esperientzia gizatiarra eta transzendentea, bai eta bere bizitza eta jarduera nagusitu zuten mundua transformatzeko konpromisoa ere, heldutasun integraleko eta pertsonaren zein gizartearen balioen osotasuneko paradigman.

Horregatik, gure hezkuntza-komunitateek inguruko errealitateari eta beharrei hurbiltzeko, sortzaileak izateko eta salbamenerako jarduera zehatzetan konpromiso solidarioa hartzeko jarrerak proposatzen eta lantzen dituzte.

Transzendentziari eta, aldi berean, Jesusen fedeari irekita dagoen gure proposamenak gizabanako bakoitza honela aintzatestea eragiten du: Jainkoaren irudi zein pareko eta konpromiso pertsonala garatzeko deitutako fededuna eta herritarra, Erreinua eraikitzean.

Horrek bizitzako egoera ugarien aurrean zentzu kritiko ebanjelikoa sortzen duten hezkuntza-prozesuen garapena, pertsona bakoitzaren autokontzientzia -eskubideen eta eginbeharren subjektu gisa- eta ingurua transformatzeko eta hobetzeko konpromisoaren proposamen proaktiboaren garapenaren ezagutza eta parte-hartzea eskatzen du.

2 Nortasun kristau eta karismatikoko proiektuak proposatzen ditugu, trszendentziaren, fedearen eta balio ebanjelikoen esperientziari irekita

Jesusen esperientzi ebanjelikoaren erreferentziak balio zehatz hauen bizipena eta garapena sustatzen du:

- “Bidea, egia eta bizitza” Jesusen ikuspegi ebanjeliko gisa ulertzen den BIZITZA.
- Jainkoari “Abba” deitu dakioken hezkuntza-komunitatean bizitako SENIDETASUNA.
- Maitasuna bizitza ematea dela ulertzen dutenen ASKATASUNA, nahiz eta muturreraino eraman.
- Hitzaren eta Egiaren EZAGUTZA.
- Fundazioaren karisma ikusgarri egiten duen eta eguneroko bizitzari eta eskola-ekintzari bokaziozko zentzua ematen dion ESPIRITUALTASUN KRISTAUA.
- Inguruko GIZARTE TRANSFORMAZIOArekiko konpromisoa, Jainkoaren Erreinuko eta karisma bakoitzaren errealitate propioaren irakurketaren zeruertzean.

3 Jainkoaren erreinuko ikuspuntuaren arabera Hezkuntza Proiektuaren garapenarekin konprometitutako komunitateetan elkartzen gara

KEn, gure Hezkuntza eta Pastoral Proiektua modu dinamikoan eguneratutako sortzaileen gaitasunen eta aukera karismatikoen, hezkuntza-ohituren, ikastetxe bakoitzeko errealitatearen irakurketaren, eta hezkuntza-beharrei erantzun berrien sorkuntzaren bidez aberasten eta indartzen da.

Horregatik:

- Pobrenekiko lehentasunezko aukera partekatzen dugu, gure misioaren jatorrizko hartzaileak baitira.
- Hainbat hezkuntza-erakunderen elkarretaratze eta bateratzea lortu nahi dugu.
- Ikastetxeak fedea-kultura-bizitza arloen elkarrizketako, partekatuko egia bilaketa, lan pertsonalerako zein talderako eta pertsonen zein taldeen garapen integraleko inguruak bilakatzen ditugu, gure hezkuntza-komunitateetan Espirituaren presentzia iraunkorraren eta Jainkoaren Erreinua ezartzeko eta bertara hurbiltzeko konpromisoaren ezaugarri gisa.

4 Hezkuntza eta Pastoralta estilo propioa dugu, eta ebanjelizatuz heztea eta heziz ebanjelizatzea dakar

KEko ikastetxeek gizarte eta herritartasun berria eratzen laguntzen dute, estrategikoki "nukleo animatzailean" oinarrituz. Hauek, hezkuntza-komunitateko pastoraltzako animazio osoan bokaziozko konpromisoa hartu duten pertsonekin osatuta dago, elizaren eta gizartearen zentzuarekin, eta hauekiko leiala izanik: nortasuna, sustrai karismatiko eta euskaldunak, eta tokiko elizan integrazio eta konpromiso aktiboa.

Hezkuntza eta pastoraltzako prozesuak antolatzean eta garatzean, gure ikastetxeak "ebanjelizazioko gune/giro hezitzaileak" eta "leku teologikoak" –Jainkoaren presentzia- izatea saiatzen gara, pertsona guztiek Jesusen Berri ona ezagutzeko, komunitateko sena garatzeko eta bizitzaren, fedearen eta pobrenekiko zerbitzu solidarioaren ospakizunetik esperientzia ateratzeko aukera izan dezaten.

"Kristau komunitateko" eskola garenez, hezkuntza eta pastoraltzako ekintzei dagokienez nahiago dugu:

- "Prozesuetan" laguntzea "jarduerak" egitea baino.
- Pastoraltzako animazioko "erantzunkideak" edukitzea "arduradunak" edukitzea baino.
- "Eskola osoa pastoralaren barruan" izatea "eskolan pastora" izatea baino.
- "Bizitzaren eta fedearen galderak" zabaltzea ezarritako "erantzunak" erabili beharrean.
- Eskaintza pastora pertsonalizatzea denontzat pastora egin beharrean.



ERRONKAK

- Gure sortzaileengandik eta Elizarengandik jasotako misioa erantzukizunez onartzea, gurea den eremuan Jesusen eta Ebanjelioaren irudia izan gaitzen.
- Identitate ebanjelizatzailea hezkuntza integraleko gure eskaintzaren bihotzean sartzea:
 - Gakoak, planteamenduak eta proposamenak berrikusiz eta zehaztuz.
 - Hezkuntza-aukeraketakalitatezko elementuak ebanjelizazio integralaren erdian jarri.
- Nork bere bokazioa eta elizaren partaide izateko bilaketari loturiko alderdiak lehenestea.
- Motibazio egokiak eta espiritualtasun karismatikoko esperientziak eskaintzea, egungo kulturari irekitadun erantzun eta proposamen pastoralekin.
- Erakunde-karismatikoko fideltasun dinamikoa bermatzen duten hezkuntza eta pastoraltzako ekintzen “muintzaileak” sortzea.



ESTRATEGIAK

- Ikastetxeen etorkizuna, bertako nortasun kristaua eta karismatikoa mantentzen duten pertsonen eta antolamendu egituretatik igarotzen delaren pentsamoldea sustatzea.
- Hezkuntza- eta prestakuntza-eskaintza desberdinen nortasun ebanjelizatzailean esplizituki haztea.
- Hezitzaileei laguntzea, fedea-kultura-bizitza arloen elkarrizketako ikaskuntzan eta jardueran bai eta barnekotasunaren hezkuntzan ere.
- Gauzatutako aukeren arabera helburuak lehenestea eta baliabideen esleipena egokitzea.
- Ikastetxe guztiei aholkularitza eta jarraipena eskaintzea eta, batez ere, etorkizunean hezkuntza sisteman jarraitzeko zailtasun handiagoak dituztenei.
- Giza baliabideen ardura eta gure hezkuntza-eskaintzaren kalitate eta osotasunaren araberako materialak zehazten dituzten gardentasun-irizpideak berrikustea.

